



BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 2009

Bertsolari Txapelketa Nagusiaren XV. edizioa ospatuko da udazkenean. Bertsozale Elkartek antolatutako zazpigarrena, hain zuzen.

14 saiok osatuko dute 2009ko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Urriaren 3an abiatuko da Zestoan eta abenduaren 13an izendatuko da Txapelduna Barakaldon.

2005ean bezala, aurten ere Barakaldoko Bilbao Exhibition Centre-n izango da finala. Bertsolaritzak egun duen osasun ona medio, eta Txapelketak hartu duen dimentsioa kontutan izanik, ahal den bertsozale gehienek festan parte hartzeko aukera izan dezaten.

Ibilbidea Euskal Herri osoko herrialdeetako 44 bertsolarik, 10 epailek eta 10 gai-jartzailek egingo dute eta beraiekin batera hainbat eta hainbat bertsozalek.

Euskal Kulturgintzaren baitan zeresana emango duela espero dugu eta parte hartzaileek eta saioetara gerturatuko diren zaleek gozatzeko parada izatea.

Txapelduna izendatzeak besteko garrantzia du Bertsozale Elkartearantz Txapelketak bertsolaritzari ematen dion astinduak, bertsolaritza indartzea baita Txapelketaren helburu nagusienetakoa: herrialdeetako bertsogintza erakustea, ohiko bertsozalea asebetetzea, bertsozale berriak erakartzea, erdal komunitateari bertsolaritza ezagutaraztea eta bertsolaritza garaiko kultur adierazpen bezala errekonozitua izatea.

Muinean, baina, bertsolaritzaren indarra bere berezko izaeran dago, bat-batekotasunean, eta hori da aurtengo edizioan azpimarratu nahi duguna. Txapelketan murgiltzera gonbidatu nahi dugu oro eta bat-batekotasunaren magiaz goatzera.

Saio bakoitza bakarria izango da eta bertsolariak eta publikoak bat egingo dute une horretan; publikoaren erantzunak bertsolariarengan eragingo du eta bertsolariaren jardunak publikoarengan. Bat-batean eta une iragankor batean sortzeko gaitasunak ematen dio zentzua bertsoari eta honek emozio andana sortzen du bertan bildutakoengan: poza, tristura, amorrua, amodioa, desioa, etsipena, harridura... Finean, emozio zukulu-saltza handia da bertso saioa eta lehiak areagotu egiten ditu sentazio horiek.

Hauxe da bertsolaritzaren magia eta Errusiar mendiaren bidez irudikatu nahi izan duguna.

Har ezazue gurekin batera bertsoaren trena eta goza dezagun ahozketasunaren festaz, bertsolaritzaren jai handiaz.

EZAUGARRI NAGUSIAK

Irudia

Bertsozale eta bertsolariek, bertso saioetan eta are gehiago Txapelketa batean bizi dituzten emozioak agertu nahi dituen irudia aukeratu du Bertsozale Elkarteak edizio honetan. Aukeraketa lehiaketa bidez egin da. 20 bat ideien artean Harman enpresak proposatutakoa hartu da. Errusiar mendia eta loopia dira irudiko osagai nagusiak. Loopiek, era berean, 2009 urtea, txapelketa urtea adierazten dute.

Kantua

Zura taldeak egin du txapelketako kantua. “Bertsoka-bertsoka” izenburua du eta taldearen estiko fresko eta dantzagarria oinarri izan arren, tradizio ezberdinetako ukituak eman dizkiote: brasilgo erritmo dantzagarrietatik hasi, lirika era tradizional eta modernoak nahastuz, eta latin jazz ukitu jostakorra.

Partaidetza

44 bertsolarik hartuko dute parte: 2 Arabatik, 12 Bizkaitik, 21 Gipuzkoatik, 4 Nafarroatik eta 5 Lapurdi, Behe-Nafarroa eta Zuberoatik. 2005eko Txapelketa Nagusiko finalistek eta herrialde bakoitzeko txapelketetan sailkatuek bakarrik dute Txapelketa Nagusian parte hartzeko eskubidea. Inork ez dio uko egin eskubide horri.

Faseak eta Sailkapenak

Hiru sailkapen fasetan banatuko da txapelketa hau: final-laurdenak, finalurrekoak eta finala.

Final-laurdenak. 36 bertsolari izango dira lehian, guztiak herrialdeko txapelketetan sailkatuak. Sei bertsolariz osatutako sei talde egingo dira eta saio bakarrera lehiatuko dira. Talde bakoitzeko irabazlea zuzenean pasatuko da hurrengo fasera; puntu gehien batzen dituztenekin osatuko da finalurrekoetara pasatuko den taldea.

Finalurrekoak. 24 bertsolari lehiatuko dira fase honetan: izena eman duten 2005eko zazpi finalista eta final-laurdenetako saioetatik sailkatu diren 17 bertsolari. Itzuli bi izango ditu finalurreko faseak: lau saio izango dira lehenengoan eta hiru bigarreanean. Bi saioetako puntuazioak gehitu egingo dira, baina lehen itzulian puntu gutxien lortu duten sei bertsolariek bigarren itzulian ez dute kantatuko. Taldeak aldatu egingo dira lehen itzulitik bigarrenera.

Finala. Zortzi bertsolari lehiatuko dira: 2005eko txapelduna eta finalurrekoetatik puntuazioz sailkatutako zazpiak. Hiru saiotan banatuko da ekitaldia: goizean zortzi bertsolariak jardungo dira, eta zortzi bertsolariekin emango zaio hasiera ere arratsaldeko jardunari. Azkenean, puntu gehien batu dituzten bi bertsolarien arteko lehia egingo da: buruz burukoa. Egun osoko jardunean puntu gehien dituen bertsolaria izango da txapeldun.

Txapelketaren historian, Txapeldunak

urtea	lekua	txapelduna
1935	Donostia	Iñaki Eizmendi "Basarri"
1936	Donostia	Manuel Lujanbio "Txirrita"
1960	Donostia	Iñaki Eizmendi "Basarri"
1962	Donostia	Manuel Olaizola "Uztapide"
1965	Donostia	Manuel Olaizola "Uztapide"
1967	Donostia	Manuel Olaizola "Uztapide"
1980	Donostia	Xabier Amuriza
1982	Donostia	Xabier Amuriza
1986	Donostia	Sebastian Lizaso
1989	Donostia	Jon Lopategi
1993	Donostia	Andoni Egaña
1997	Donostia	Andoni Egaña
2001	Donostia	Andoni Egaña
2005	Barakaldo	Andoni Egaña

SARRERAK

	Arruntak	Bazkideak	Gazteak*
Final-laurdenak	9€	6€	4€
Finalurrekoak	12€	9€	4€
Finala	26€	18€	6€
Bonoak*	60€	45€	25€
Finaleko bazkaria	20€		
Finalerako autobusa	12€		

1. Gazteak,, 16 urte artekoak (16 barne)
2. Bonoak ez du finalerako balio

Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak inoiz baino aukera gehiago eman nahi ditu saioetako sarrerak aurrez erosteko.

Saioetako sarrerak

Aurrez internet bidez bakarrik erosi ahal izango dira. Horretarako www.bertsosarrerak.eu ataria egokitu da. Txapelketa Nagusiko webgunetik (www.txapelketanagusia.eu) lotura zuzena izango du.

Saioa egingo den astean (astelehenean) aktibatuko da salmenta eta ostegunera arte salgai izango dira. Beti izango da sarrera kopuru mguatua txarteldegian salgai eta internetez saltzen ez direnak.

Finalerako sarrera – autobus eta bazkari txartela

Internetez ezezik, herrietako ohiko salmenta puntuak izango dira. Salmenta puntuen zerrenda www.txapelketanagusia.eu atarian kontsultatu ahal izango da.

Bluetooth sistema

Bluetooth sistema erabilia, Akting ingenieritzaren laguntzarekin, sarrera sistema berria ipini da Txapelketa Nagusirako. Sistema hori erabilia, bertsozaleak saio hasiera eta amaieran, bere mugikorrean txapelketari buruzko informazioa eta saioko puntuazioak jaso ahal izango ditu.

www.txapelketanagusia.eu

Bertsolari Txapelketa Nagusia 2009 ekitaldiko webgune ofiziala da.

Txapelketako informazio guztia on-line dago:

Txapelketaren historia

Antolatzaileari, Bertsozale Elkarteari, buruzko informazioa

Partaideen fitxak

Informazio praktikoa

Saioz saioko informazioa: kantatuko duten bertsolariak, puntuazioak, saiora heltzeko mapa,

...

Sarrerak erosteko aukera

Txapelketan aurrera egiteko sailkatze sistema

Informazio eguneratua:

Saioen kronikak

Blogak

Puntuazioak

Elkarrizketak

Inkestak

Komunikabideentzat gunea

- Komunikabideetako hemeroteka
- Komunikabideetan Txapelketa jarraitzeko gida
- Kazetarietzat materiala (erregistratu egin beharko da)

EGUTEGIA

Final-laurdenak - Ordutegia, 17:30

Urriak 3, larunbata, Zestoa.	Gurutzeaga pilotalekua.
Urriak 10, larunbata, Leitza.	Udal kiroldegia
Urriak 11, igandea, Bilbo.	Arriaga antzokia.
Urriak 17, larunbata, Uztaritze	Kiroleta pilotalekua.
Urriak 18, igandea, Zarautz.	Aritzatalde pilotalekua.
Urriak 24, larunbata, Laudio.	Lamuza Granja pabilioia.

Tartean (azaroak 1 asteburua) atsedena.

Finalaurrekoak – Ordutegia, 17:30

Azaroak 7, larunbata, Bergara	Udal pilotalekua
Azaroak 8, igandea, Gasteiz	Europa pabilioia
Azaroak 14, larunbata, Tolosa	Usabal kiroldegia
Azaroak 15, igandea, Hendaia	Beltzenia pilotalekua
Azaroak 21, larunbata, Gernika	Jai-Alai pilotalekua
Azaroak 22, igandea, Iruñea	Anaitasuna pabilioia
Azaroak 29, igandea, Donostia.	Antonio Elortza belodromoa

Tartean (abenduak 6,7,) atsedena, Durangoko azoka eta zuzia

Finala: abenduak 13, BEC – Ordutegia, 11:00 eta 16:30

LANAK

Final-laurdenetan - (15 bertso puntuagarri)

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian.
Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian.
Banaka, lehen puntua emanda, hiru bertso zortziko txikian.
Binaka, gaia emanda, hamarreko txikian hiruna bertso.

Kartzelako lana:

Banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

Finalurrekoetan

Lehen itzulian - (15 bertso puntuagarri)

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian.
Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian.
Banaka, lehen puntua emanda, hiru bertso zortziko txikian.
Binaka, gaia emanda, hiruna bertso sei puntuko motzean.

Kartzelako lana:

Banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

Bigarren itzulian - (15 bertso puntuagarri)

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarreko handian.
Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian.
Binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarreko txikian.
Binaka, gaia emanda, lauko handian, bakoitzak sei lauko osatu arte.

Kartzelako lana:

Banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

Finalean

Goizean - (14 bertso puntuagarri)

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian.
Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian.
Banaka, lehen puntua emanda, bi bertso zortziko txikian.
Binaka, gaia emanda, hiruna bertso sei puntuko motzean.

Kartzelako lana:

Banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

Arratsaldean - (10 bertso puntuagarri)

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarreko txikian.
Binaka, gaia emanda, zortziko txikian puntutan, zortzi bertso osatu arte.
Banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

Buruz burukoa - (10 bertso puntuagarri)

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso sei puntuko motzean.
Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian.

Kartzelako lana:

Banaka, hitza gaitzat emanda, bertso bat bederatziko txikian.
Banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

PARTAIDEEN DATU ESTATISTIKOAK

2009. URTEA

Generoa kontuan hartuta

	Emakumeak	Gizonezkoak
Bertsolariak	13	31
Epaileak	2	8
Gai-jartzaileak	6	4

Adinaren arabera

	<20	21-25	26-30	31-35	36-40	40>
Bertsolariak	3	8	11	17	4	1
Epaileak			2	4	2	2
Gai-jartzaileak		1	4	3		2

* Bertsolari gazteena Maddalen Arzallus (18 urte) eta zaharrena Andoni Egaña (48 urte)

Txapelketa Nagusian partehartzea

	Lehengoz	Errepikatzaileak	3tik gora TN
Bertsolariak	13	12	19
Epaileak	4	1	5
Gai-jartzaileak	4	3	3

2001-2005-2009 Txapelketa Nagusien konparatiba

	2001	2005	2009
Bertsolari kopurua	37	38	44
Bertsolari emakume	7	10	13
Bertsolarien adin b-b	27,5	27,6	29,6
Lehenengoz parte	13	14	13
Lehengoz parte adin b-b	22,7	26,9	24,1

EPAILEAK



Zigor Leunda

Villabonarra da. 31 urte ditu. Administrazio eta enpresa kuadeaketan lizentziatua da eta bankuko langilea. Gipuzkoako herriarteko txapelketan hasi zen bertso epaile lanetan. Bigarren Txapelketa Nagusia izango du epaile lanetan. Andoain eta Tolosako bertso-eskoletan ibilitakoa da.

Ekaitz Elorriaga

Gasteiztarra da eta Abetxukon bizi da. 28 urte ditu. Delineatzaila da ogibidez. Arabako txapelketa guztietan eta Euskal Herriko eskolartekoan ibili da epaile. Txapelketa Nagusian bigarrenaz jardungo du.

Eneko Bidegain

Lapurtarra da, Baionan jaioa. 34 urte ditu. Xalbador bertsolariaren iloba da. Berria egunkariko kazetaria da gaur egun. Hirugarrenez izango da Txapelketa Nagusiko mahaian.

Jon Abril

Beratarra da. 34 urte ditu. Kazetaritzan lizentziatua da eta kultur dinamizatzailea. Egun Berako zinegotzia da. Politika du ogibide. Nafarroako txapelketako epaimahaiko kidea izan da azken urteetan eta Txapelketa Nagusian ere urteetako esperientzia dauka. Bortzirietako bertso-eskolako kide izandakoa da.

Asier Ibaibarriaga

Ernuarra da. 36 urte ditu. Ingenieri elektronikoa ikasi zuen eta egun Zermik ingenieritza enpresako zuzendaria da. Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko idazkaria da eta epaileen koordinazioaren ardura dauka. Txapelketa Nagusian lehenengoz izango da epaimahaiko kidea. Deba Beheko bertso-eskolaren sortzailea da eta Eibarko Hankamotxak bertso-eskolako kidea da.

Bakarne Urreaga

Hernaniarra da. 30 urte ditu. Euskal Filologia ikasketak eginda, Astigarrako AEKn dabil irakasle-arduradun. Hernaniko txapelketan hasi eta Gipuzkoako azken bi txapelketetan epaile aritu da. Gogotsu dator lehenengoa duen Txapelketa Nagusira. Gasteizko bertso-eskolan ibilitakoa da eta Hernaniko Iraulio Panttalone Bertso Kabiako kidea da.

Josu Telleria

Bilbotarra da. 42 urte ditu. Hezkuntza arautuan bertsolaritza irakaslea da. Bizkaiko epaile taldean dago 1998tik eta gaur arteko txapelketa guztietan izan da. Euskal Herrikoan epaile taldean 2001ean sartu zen. Aurten hirugarrenez izango da Txapelketa Nagusian. Santutxuko bertso-eskolako kidea da.

Mirari Azula

Durangon jaioa, baina lekeitiarra da. 36 urte ditu. Erizaina da. Bizkaiko azken txapelketetan epaile taldekoa izan da eta Txapelketa Nagusian hirugarrenez parte hartuko du. Santutxuko bertso-eskolan ibili zen ikasle garaian.

Joseba Santxo

Bilbotarra, baina Getxon bizi da. 47 urte ditu. Euskal Filologian lizentziaduna da eta gaur egun doktoretza prestatzen dabil. Euskal etimologia du ikergaia. Zubia argitaletxeko zuzendaria ere bada. 1993. urtetik Txapelketa Nagusi guztietan izan da epailea. Algortako Bertsolari Eskolako kidea da.

Aitzol Astigarraga

Mutrikuarra da eta Donostian bizi da. 33 urte ditu. Informatikan ingeniaria da eta bigarren hezkuntzan irakasle izan da. Bertsolaritzan, epaile dabil 2003. urtetik aurrera bat-batekoetan. Txapelketa Nagusian lehenengoz izango da. Gai-jartzaile ere aritzen da herriko bertso-saioetan. Mutrikuko bertso-eskolako kidea da.

GAI-JARTZAILEAK



Lierni Altuna

Aramaioarra da. 27 urte ditu. Filosofia ikasketak egin zituen eta antropologia ikasten ari da. Ogibidez irakaslea da eta Arabako Bertsozale Elkarteko komunikazio arduraduna da. Arabako txapelketan hasieratik izan da gai-jartzaile taldekoa. Txapelketa Nagusian lehenengoz izango da. Aramaioko eta Arrasateko bertso-eskoletako kidea eta irakaslea da.

Inazio Usarralde

Usurbildarra da. 42 urte ditu. Arrasateko EMUN Koop.E.-n dihardu lan munduan euskara planak dinamizatzen. Paotxa herriko irrati librean zein Egin irratian bertso programak egin izan ditu. Gai-jartzaile moduan urteetako esperientzia dauka era guztietako txapelketa eta saiotan. Goierriko bertso-eskolaren sustatzailea eta kidea da.

Alaitz Rekondo

Lesakarra da. 29 urte ditu. Magisteritza ikasketak egin ditu, Heziketa Berezia eta Entzumen eta Hizkuntza espezialitateetan. Gai-jartzaile lanean Nafarroako txapelketan hasi zen eta Txapelketa Nagusian bigarrenaz ariko da. Bortzirietako bertso-eskolan ibilitakoa da.

Fernando Anbustegi

Elizondon jaioa. 31 urte ditu. Informatikan ingenieria da. Xorroxin irratian esatari ere bada "Bertsoinka" bertsolaritza saioan. Azken urteetan Nafarroako txapelketan izan da gai-jartzaile eta Txapelketa Nagusian lehenengoz parte hartuko du.

Maite Berriozabal

Berriztarra da. 21 urte ditu. Publizitate eta Harreman Publikoak ikasten dabil. Gai-jartzaile lez Bizkaiko azken bi txapelketatan parte hartu du eta Txapelketa Nagusian lehenengoz parte hartuko du.

Bernardo Mandaluniz

Mungiarra da. 58 urte ditu. Medikua lanbidez. 1985. urteko Bizkaia eta Arabako txapelketatik aurkezle eta gai-jartzaile finkoa izan da. Txapelketa Nagusian ere 1986. urtetik dabil. Mungiako Taket Bertsozale Elkarteko sortzailetakoa da.

Saroi Jauregi

Zaldibitarra da. 31 urte ditu. Euskal Filologian lizentziatua da. Elhuyar Fundazioan egiten du lan, euskarazko testuen zuzentzaile. ETBko Hitzetik Hortzera saioan aurkezle ibili zen 2005etik 2008ra. Herriarteko txapelketan hasi zuen gai-jartzaile ibilbidea. Txapelketa Nagusian hirugarrenez izango da. Txikitan Zaldibiako bertso-eskolan ibili zen.

Unai Elizasu

Altzan jaioa da. 29 urte ditu. Kirol Hezkuntza eta Animazio Teknikari ikasketak ditu. Gaur egun Bertsozale Elkarteko LANKU bertso zerbitzuak ekimenean ari da lanean. Emanaldi bereziak sortu eta emanaldi berezietako partaidea da: Barkatu, Bertso estropada, Erregea eta Bufoia, Bertso&Jazza. www.gaijartzailea.com atariko sortzailea da. Bigarrenez parte hartuko du Txapelketa Nagusian.

Zuriñe Iarritu

Bilbotarra da. 31 urte ditu. Euskal Filologian lizentziatua da. Santutxuko bertso-eskolan hasi zen gai-jartzaile eta Bizkaiko txapelketetan izan da azken urteetan. Txapelketa Nagusian bigarrenez izango da.

Joana Itzaina

Baionarra da. 28 urte ditu. Ortofonisita ikasketak egin ditu. Bertsularien Lagunak elkartearen zuzendaritzako kidea da. 2006an hasi zen gai-jartzaile lanetan. Txapelketa Nagusian lehenengoz parte hartuko du. Garaziko helduen bertso-eskolako kidea da.

SAIOZ SAIO

ZESTOA – Urriak 3 – Gurutzeaga pilotalekua – 17:30



Aurkezlea – Inazio Usarralde

Iñaki Gurrutxaga

Orietarra da. 28 urte ditu. Euskal Filologian lizentziatua da eta gaur egun Bertsozale Elkartean dihardu lanean, Ahozkotasuna eta Bertsolaritza proiektuko irakasle. Bigarrenenez parte hartuko du Txapelketa Nagusian. Hamaika Bertuteko kidea da. Orioko “Errikotxia” bertso-eskolako partaidea da, baina Zarautz, Gasteiz, Itziar eta Bergarako bertso-eskoletan ere ibilia da.

Jone Uria

Algortarra da. 19 urte ditu. Matematika ikaslea da. 12 urte zituela hasi zen bertsoan Algortako Bertsolari Eskolan. Eskolarteko txapelketetan Bizkaiko txapelduna izan da txiki zein nagusitan. 2008ko Bizkaiko txapelketan finalurrekoetara heldu zen. Aurten hartuko du parte lehenengoz Txapelketa Nagusian.

Miren Artetxe

Hendaiarra da eta Bigara Barrenen (Araba) bizi da. 24 urte ditu. Euskal Filologian lizentziatua da. Bertso-eskolako irakasle ibili da zenbait urtez, Hendaiako ikastolan eta Bartzelonan. Hendaiako eta Oiartzungo bertso-eskoletako partaidea izan da. Hamaika Bertuteko kidea da eta Bigara Barrengo bertso-eskolakoa da.

Oihana Bartra

Bilbotarra da. 25 urte ditu. Irakaslea da Loiuko Lauro ikastolan. Bizkaiko lau txapelketetan parte hartu du eta azken hirutan finalurrekoetara sailkatu zen. Lehenengoz izango da Txapelketa Nagusian. Santutxuko bertso-eskolako kidea da.

Uxue Alberdi

Elgoibartarra da eta Getarian bizi da. 25 urte ditu. Kazetaritza ikasi zuen eta gaur egun Herri Irratiko Testuketan literatur saioan dabil esatari. Argian ere elkarrizketatzailea da. Idazlea ere bada; azken lana, “Aulki-jokoa” elaberria (2009). Hamaika Bertuteko kidea da. 2007an Gipuzkoako txapelketako finalurrekoetara heldu zen. Txapelketa Nagusian lehenengoz kantatuko du. Santutxu, Oiartzun, Getaria eta Zarauzko bertso-eskoletan ibilia da.

Odei Barroso

Barakaldon jaioa da, baina Urruñan bizi da. 21 urte ditut. Euskal Filologia ikaslea da. Bertotan 13 urterekin hasi zen. 2008. urtean Iparraldeko txapelketako finalista izan zen. Lehenengoz izango da Txapelketa Nagusian. Hendaiako bertso-eskolan ibilitakoa da.

LEITZA – Urriak 10 – Udal kiroldegia – 17:30



Aurkezlea – Fernando Anbustegi

Iñigo Olaetxea

Lesakarra da. 34 urte ditu. Nafarroako txapelketan ohiko finalistetako, 2009an laugarren amaitu zuen. Bigarrenenez parte hartuko du Txapelketa Nagusian. Lesakako bertso-eskolan egindako bertsolaria da.

Ainhoa Agirreazaldeg

Elgetarra sortzez, Zarautzen bizi da. 31 urte ditu. Euskal Filologian eta Alemaniar Filologian lizentziatua, egun helduen euskara irakaslea da. Debagoienako hainbat bertso-eskolatan irakasle aritu da eta gazte mailako sari asko irabazi ditu. Bertsozale Elkarteko ikerkuntza arduraduna eta zuzendaritzako kidea izan da. Hamaika Bertuteko kidea. Aurtengoa bere bigarren Txapelketa Nagusia da.

Iñigo Manzidor “Mantxi”

Zarauztarra da. 32 urte ditu. Bertsotan 14 urterekin hasi zen, aitona ere bertsolaria zuen. Musikaria, hainbat taldetan ibilitakoa da. Hamaika Bertuteko kidea. Bigarren Txapelketa Nagusia izango du. Zarauzko Etxe-Beltz bertso-eskolan hasi zen ikasle gisa, eta irakasle dabil orain. Bestalde, Zarauzko Motxian helduen bertso-eskolako kidea da.

Ibon Ajuria

Gernikarra da eta Bilbon bizi da. 32 urte ditu. Ingeles Filologian eta Alemaniar Filologian lizentziatua, eta Atzerriko Hizkuntzako Magisteritzan diplomatua. Irakaslea da. 2006ko Bizkaiko txapelketan finalista izan zen. Lehenengoz parte hartuko du Txapelketa Nagusian. Garriko bertso-eskolan hasi zen, orain Gernikako Lili bertso taldean dago eta Santutxuko b bertso-eskolara ere joaten da.

Xabier Sukia

Oriotarra da. 33 urte ditu. Gizarte zientzien komunikazioan lizentziatua da eta Euskadi Irratian “Hitza Jolas” bertso irratsaioaren zuzendaria eta esataria da. Txapelketa Nagusian aurten hartuko du parte lehenengo aldiz. Orioko “Errikotxia” eta Usurbilgo “Bota Punttuba” bertso-eskoletako kidea da.

Etxahun Lekue

Larrabetzuarra da. 29 urte ditu. Musika Hezkuntzako ikasketak egin ditu eta hezkuntza arautuan eta bertso-eskoletan bertsogintzako klaseak ematen egiten du lan. Bizkaiko txapelketan azken lau edizioetan finalista izan da eta Txapelketa Nagusian bigarren izango da. Larrabetzuko Itallen bertso-eskolako kidea da.

BILBO – Urriak 11 – Arriaga Antzokia – 17:30



Aurkezlea – Maite Berriozabal

Asier Otamendi.

Gasteizen bizi den urretxuarra da. 38 urte ditu. Elikaduran lizentziatua eta IMK Arkauten dihardu lanean. Hamaika Bertuteko kidea. Arabako txapeldun hainbat alditan izan da. Txapelketa Nagusian ere laugarrenez parte hartuko du. Gasteizko bertso-eskolan trebatutako bertsolaria da.

Amaia Agirre.

Villabonarra da. 32 urte ditu. Euskal Filologian lizentziatua da eta gaur egun hezkuntza arautuan bertsolaritzako irakaslea da. Xenpelar saria irabazi zuen 1998an. Hamaika Bertuteko kidea da. Gipuzkoako 2003ko txapelketan finalista eta 2007koan finalurrekoetara sailkatu zen. 2005ko Txapelketa Nagusian finalurrekoetara iritsi zen. Beasain, Asteasu, Villabona, Ibarra (helduak) eta Getariko (helduak) bertso-eskoletan irakasle dabil.

Julio Soto.

Gorritikoa da. 21 urte ditu. Nekazal Ingenieritza ikasitakoa eta orain Euskal Filologia ikasten hasi da. Nafarroako txapeldunordea. Aurten, bere lehenengo Txapelketa Nagusia izango da. Estitxu Arozena Iruñeako bertso-eskolan eta Arkaitz Goikoetxea Lekunberrikoan izan dira bere irakasleak.

Maddalen Arzallus.

Donibane Lohitzunen jaio eta Hendaian bizi da. 18 urte ditu. Txapelketako gazteena da. Itzulpegintza eta Interpretazio ikasketak egiten dabil Gasteizen. Jexux Arzallus bertsolariaren alaba da. Iparraldeko txapelketan hirugarren izan da 2008an. Lehenengoz parte hartuko du Txapelketa Nagusian.

Iñaki Zelaia.

Hernaniarra da. 36 urte ditu. Mekanika ikasketak egin eta horretan dihardu lanean. Herri Irratiko bertso programak entzunez bertsozaletu zen. Txapelketa eta sariketetan beteranoa, baita Txapelketa Nagusian ere. Hernaniko bertso-eskolako kidea da.

Jexux Mari Irazu.

Larrauldarra da. 37 urte ditu. Ikasketaz Filosofian lizentziatua da eta azken hamar urtetan bertsolaritza eta kazetaritza konbinatu ditu. Bertsoa.com bertso plaza digitalaren sortzailea da. Hiru Txapelketa Nagusitan kantatu du eta bitan finalista izan da. Tolasa eta Hernaniko bertso-eskoletan ibilitakoa da.

UZTARITZE – Urriak 17 – Kiroleta pilotalekua – 17:30



Aurkezlea – Joana Itzaina

Xabi Paya.

Algortarra da. 26 urte ditu. Interpretazio eta Itzulpengintza eta piano ikasketak eginak ditu. Itzultzaile, bikoizlari, ikerlari eta irakasle lanetan ibilia da. Azken urteotan bertsolaritza arte eta disziplina berriekin elkartzeko ahaleginetan dabil. Bizkaiko txapelketa izan zen 2006an. 2005eko Txapelketa Nagusian finalurrekoetara heldu zen. Algortako Bertsolari Eskolako kidea da.

Aitor Sarriegi.

Beasaindarra da. 32 urte ditu. Informatikako Ingenieritza ikasketak egin zituen eta Urretxu-Zumarraga ikastolan IKT dinamizatzailea da. 1992an Lizardi eta 1993an Osinalde sariak irabazi zituen. 2007an Gipuzkoako txapelketan finalista izan zen eta Txapelketa Nagusian finalurrekoetara heldu da azken hiru edizioetan. Goierriko Bertso eskolako kidea da.

Erika Lagoma.

Lesakarra da. 28 urte ditu. Hispaniar Filologian lizentziaduna da eta Bertsozale Elkartearen langilea. Bi aldiz izan da Nafarroako eskolarteko txapelketa. 2004an hartu zuen parte lehen aldiz Nafarroako Txapelketan. 2006tik 2009ra finalista izan da, azken honetan hirugarren postua eskuratuz. Lehenengoz hartuko du parte Txapelketa Nagusian. Bortzirietako bertso-eskolaren parte hartu zuen gazterik eta gaur egun Iruñerriko bertso-eskolako kidea da.

Unai Muñoa.

Lasartearra da. 27 urte ditu. Oinarrizko ikasketak egin eta lan askotan ibilitakoa: sukaldari, harakin eta tabernari. Bertsozale Elkarteko irakaslea da hezkuntza arautuan. Hamaika Bertuteko kidea da. Txapelketa eta sariketa ugaritan ibilitakoa da. Lehenengoz kantatuko du Txapelketa Nagusian. Lasarteko bertso-eskolan trebatu da.

Beñat Gaztelumendi.

Donostiarra da, Añorga auzokoa. 22 urte ditu. Ikus-entzunezko Komunikazioko ikaslea da. Hamaika Bertuteko kidea da. Eskolarteko eta gazte sariketetan sari asko irabazi ditu. 2007ko Gipuzkoako txapelketan bigarren egin zuen. Lehenengoz kantatuko du Txapelketa Nagusian. Igeldo, Hernani eta Santutxoko bertso-eskoletan ibilitakoa da.

Arkaitz Estiballes.

Galdakaoztarra da eta Bilbon bizi da. 32 urte ditu. Euskal Filologia ikasketak egin zituen eta gaur egun hezkuntza arautuan bertsolaritza irakaslea da. 12 urterekin hasi zen bertsolaritzan, Eguzkibegi ikastolan. Bizkaiko txapelketan finalista izan da 2000. urtetik eta Txapelketa Nagusian hirugarrenez kantatuko du. Santutxuko bertso-eskolako kidea da.

ZARAUTZ – Urriak 18 – Aritzbatalde kiroldegia – 17:30



Aurkezlea – Saroi Jauregi

Iratxe Ibarra.

Markinarra da. 34 urte ditu. Euskal Filologiako ikasketak egin eta irakaskuntzan ibili ostean, euskara teknikari legez dabil orain. Bizkaiko txapelketan finalista izan da sarri eta Txapelketa Nagusian laugarrenez izango da. Santutxuko bertso-eskolan ibilitakoa da eta gaur egun Markinako bertso-eskolako kidea da.

Xabier Silveira.

Lesakarra da. 32 urte ditu. Gidoigintza ikasketak egiten dabil. RAP-aren eta bertsoaren uztarketa ekimenak sustatzen dabil. Nafarroako egungo txapelduna, lortutako seigarrena. Txapelketa Nagusian hirugarrenez kantatuko du. Bortziriko bertso-eskolako kidea da.

Iker Zubeldia.

Zegararra da. 28 urte ditu. Galdaragintzan lan egiten du. Etxetik eta La Salleko fraileetatik datorkio bertsozaletasuna. Goirreko bertso-eskolan ibilitakoa ere bada. 2007ko Gipuzkoako txapelketa zortzigarren egin eta gero, bigarren arituko da Txapelketa Nagusian.

Unai Agirre.

Hernaniarra da 33 urte ditu. Gipuzkoako Sagardogile Elkartean egiten du lan. Bertsotan Langile ikastolan hasi zen Juanjo Uriarekin. 2007An, Gipuzkoako txapelketan, finalista izan zen. Txapelketa Nagusian ere parte hartu izan du. Hernaniko bertso-eskolako kidea da.

Oihane Perea.

Gasteiztarra da. 31 urte ditu. Bertso-eskolen sustatzaile eta irakasle izan da eta gaur egun Arabako Bertsozale Elkarteko langilea da. “Emetik bertso kabareta” ekimeneko kidea izan da. Arabako egungo txapelduna da eta bigarrenez kantatuko du Txapelketa Nagusian. Gasteizko bertso-eskolan eman zituen lehen bertso urratsak.

Joxe Munduate.

Ataundarra da. 36 urte ditu. 10 urte zituela idatzi zituen bere lehen bertsoak. 1989. urtean Lizardi eta Osinalde sarien irabazle izan zen. 2005ekoan huts egin arren, laugarrenez parte hartuko du Txapelketa Nagusian. Ordiziko bertso-eskolan hasi eta Goierriko bertsolariekin biltzen jarraitzen du.

LAUDIO – Urriak 24 – La Granja pabilioia – 17:30



Aurkezlea – Zuriñe Iarritu

Fredi Paia.

Algortarra da. 28 urte ditu. Bertsolari, musikari, etnografo eta iritzigilea. Euskal kulturaren biltze eta ikerketa lanean eman ditu azken urteak Labayru ikastegian. Txapel Bete Bertso, Zaharrak Berri Tour, Bertso Tranpak, Hudaltzainak, Payadoreak eta bertsolaritzarekin lotutako ekimen berritzaile askotan hartu du parte. Bost aldiz Bizkaiko txapelketan finalista eta azken Txapelketa Nagusi bietan finalaurrekoetan kantatu du. Algortako Bertsolari Eskolako kidea da

Iñigo Izagirre.

Itziartarra da eta Arabako Birgara Barren herrian bizi da. 28 urte ditu. Nekazari Eskolan ziklo bat egin du. Gai-jartzaile lanak egin izan ditu eta bertso-eskoletan eta hezkuntza arautuan aritu da bertso irakasle. Bigarrenez kantatuko du Txapelketa Nagusian. Zarauzko bertso-eskolan eman zituen lehen urratsak eta orain Birgara Barrengo bertso-eskolakoa da..

Arkaitz Oiartzabal “Xamoa”.

Oiartzuarra da. 24 urte ditu. Euskal Filologia, Lanbide Heziketa eta Haur Hezkuntza ikasten ibilitakoa. Tabernari eta lorazain lanak ere egin ditu. Hamaika Bertuteko kidea. 2007ko Gipuzkoako txapelketaren antolatzaile. Txapelketa Nagusian lehenengoz kantatuko du. Errenteria-Oreretako Xenpelar bertso-eskolan hasi eta gaur egun Oiartzungo bertso-eskolan eta Pasaikoan dabil.

Onintza Enbeita.

Muxikarra da. 30 urte ditu. Kazetaritza ikasketak amaitu eta kazetari moduan ibili da. Gaur egun, euskara klaseak ematen ditu Labayru Institutuan. Bertso idatzi sarietan irabazi duen garrantzitsuena Algortako Balendin Enbeita sariketa da. Bizkaiko txapelketan lehenengoz 1998an parte hartu zuen, eta zken bietan finalean kantatu du. Bigarrenez kantatuko du Txapelketa Nagusian. Garriko bertso-eskolako kidea izan da.

Miren Amuriza.

Berriztarra da. 19 urte ditu. Euskal Filologia ikasten dabil. Bizkaiko eskolarteko hiru txapel eta Euskal Herriko bat jantzi ditu. Aurten kantatuko du lehenengoz Txapelketa Nagusian. 12 urterekin hasi zen bertsoan Berrizko bertso-eskolan eta azken urteotan bera da bertako arduraduna.

Jon Martin.

Oiartzuarra da. 28 urte ditu. Publizitatea eta Harreman Publikoetan lizentziatua da. Kazetari eta gidoilari lanak egin ditu. “Ero” liburua idatzi du. Hamaika Bertuteko kidea da. Oiartzungo Bertso Astearen antolatzailea da. Bigarrenez kantatuko du Txapelketa Nagusian. Oiartzungo bertso mugimenduak bultzatuta hasi zen eta gaur egun Karrikako eta Auzlaneko bertso-eskoletan dabil.

FINALAURREKOAK



Honako hauek dira finalaurrekoetan txapelketa hasiko duten bertsolariak, 2005. urteko Txapelketa Nagusiko finalistak

Aitor Mendiluze.

Andoaindarra da. 34 urte ditu. Ingenieritza ikasketak egin ditu eta Gipuzkoako Bertsozale Elkarteko langilea izan da. 1995ean eta 2007an Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa irabazi zuen. 2001 eta 2005eko Txapelketa Nagusietan azken saiora iritsi zen. Hernani eta Andoaingo bertso-eskoletan ibilitakoa da. Ikasle ezezik bertso irakasle ere jardun du.

Unai Ituriaga.

Durangarra da. 35 urte ditu. Bertso jardunaz aparte, gidoigintzan egiten du lan. “7 Eskale” eta “Gu ta Gutarrak” proiektuetako kidea izan da. Bi aldiz izan da Bizkaiko txapelduna eta 1993az geroztik lau aldiz Txapelketa Nagusiko finalista. 2005eko txapeldunordea da. Durangoko bertso-eskolan ibilitakoa.

Ametz Arzallus.

Hendaiarra da. 25 urte ditu. Kazetaria da eta komunikabide bat baino gehiagotan kolaboratu izan du. Jexus Arzallus bertsolariaren semea da. Iparraldeko txapelduna. Hirugarrenez kantatuko du Txapelketa Nagusian. Hendaiako bertso-eskolako irakaslea da.

Igor Elortza.

Durangarra da. 34 urte ditu. Topografi Ingenieritzan dipomatua da. Gaur egun Anboto astekarian zuzentzaile dihardu, baina gehienbat sorkuntzari emana bizi da. “7 Eskale” eta “Gu ta Gutarrak” taldeetan ibilitakoa da. Bizkaiko Bertsozale Elkarteko zuzendaritzako kidea da. Bizkaiko txapelduna da eta bosgarren Txapelketa Nagusia izango da beretzat. Durangoko bertso-eskolan trebatutakoa da.

Maialen Lujanbio.

Hernaniarra da. 33 urte ditu. Arte Ederretako lizentziaduna da. Bertsogintzaz gain, euskarazko letren inguruan garatzen du bere lana. 2006an Ornitorrinkus ekimena abian ipini zuen, bertsogintza eta musika esperimentalak bateratuz. 2003an Gipuzkoako txapelketa irabazi zuen. Bere laugarren Txapelketa Nagusia izango da. Hernaniko bertso-eskolan hasitako bertsolari da.

Sustrai Colina.

Urruñarra da. 26 urte ditu. Zuzenbidean lizentziatu da eta gaur egun Argia aldizkarirako elkarrizketak egiten ditu. 2001 eta 2005eko Txapelketa Nagusietan finalista izan zen, eta 2008ko Iparraldeko txapeldunordea. Hendaiako bertso-eskolan ibilitakoa da bai ikasle bai irakasle.

Jon Maia.

Urretxun jaio eta Zumaian bizi da. 36 urte ditu. Euskal Filologian lizentziaduna. Bertsolaritzaz gain, kantagintzan aritu da (Karidadeko Benta). Nobela bat idatzi du “Riomundo” eta bidaia liburu bat “Apaizac Obeto”. Gidoilari lanak ere egiten ditu. Txapelketa Nagusiko azken hiru finaletara sailkatu da. Zumaiako bertso-eskolan hazitakoa da.

FINALA

BARAKALDO – Abenduak 13 – BEC – 11:00 eta 16:30



Aurkezleak - Alaitz Rekondo, Zuriñe Iarritu eta Saroi Jauregi

Andoni Egaña. Zarauztarra da. 48 urte ditu Euskal Filologiako ikasketak egin zituen eta sorkuntza lanetan dihardu azken urteetan. Eleberriak, saiakerak, iritzi artikulak, gidoiak... idazten ditu. Txapelketa Nagusiko finalean zazpigarrenez izango da. Azkeneko lauretan txapelduna izan da.

Finalerako zerbitzuak

Hautzaindegi zerbitzua izango da

Bazkaria

Menua: 18 eurotan

Mahaiak: norbere bazkaria eramanda bazkaltzeko

Autobus linea bereziak Euskal Herriko hainbat herritatik

SAILKATZE PROZESUA

FINALAURREKOEN 1. ITZULIRAKO

<i>Bergara</i> 2009-11-07	<i>Gasteiz</i> 2009-011-08	<i>Tolosa</i> 2009-11-14	<i>Hendaia</i> 2009-11-18
Aitor Mendiluze	Unai Iturriaga	Igor Elortza	Ametz Arzallus
Maialen Lujanbio	Laudioko 1goa	Sustrai Colina	Jon Maia
Leitzako 1. sailkatua	Bilboko 1goa	Zarauzko 1goa	Zestoako 1goa
Uztaritzeko 1goa	Putuazioz 1goa	Puntuazioz 2.	Puntuazioz 3.
Puntuazioz 4.	Puntuazioz 5.	Puntuazioz 6.	Puntuazioz 7.
Puntuazioz 8.	Puntuazioz 9	Puntuazioz 10.	Puntuazioz 11.

FINALAURREKON 2. ITZULIRAKO

<i>Gernika</i> 2009-11-21	<i>Iruñea</i> 2009-11-22	<i>Donostia</i> 2009-11-29
Tolosako 1goa	Hendaiako 1goa	Bergarako 1goa
Gasteizko 1goa	Puntuazioz 1goa	Puntuazioz 2.
Puntuazioz 5.	Puntuazioz 3.	Puntuazioz 4.
Puntuazioz 8.	Puntuazioz 6.	Puntuazioz 7.
Puntuazioz 11.	Puntuazioz 9.	Puntuazioz 10.
Puntuazioz 14.	Puntuazioz 12.	Puntuazioz 13.

FINALERAKO

Barakaldo – 2009/12/13 – BEC

Andoni Egaña
Puntuazioz zazpi bertsolari

PRENTSA BULEGOA

Aurkezpen eta Prentsaurrekoak

Hona hemen txapelketak irauten duen bitartean aurreikusita dauden prentsaurreko eta aurkezpenak.

Irailak 30 – Txapelketa Nagusiaren Aurkezpen Ekitaldia. Donostiako Tabakalera egingo da arratsaldeko 19:30ean. Txapelketako partaideak, antolatzaileak, bertso-eskolak, erakundeetako ordezkariak eta kultur munduko lagunak gonbidatuko ditugu. Ekitaldi laburra izango da, 40 bat minutukoa.

Urriak 8 – Baionan (lekua zehazteko dago) Iparraldeko partaideekin batera, Txapelketa Nagusiaren aurkezpena egingo da. Prentsaurrekoa.

Azaroak 4 – Gasteizen, Villasuso jauregian, finalaurrekoen aurkezpena egingo da.

Azaroak 23 – Donostian, Koldo Mitxelena, azken finalaurrekoaren berri eskainiko da prentsaurrekoan.

Abenduak 2 – Barakaldon, BEC-en, zortzi finalistekin egingo da prentsaurrekoa.

Abenduak 13 – Final Egunean, saioa amaitzen denean, balorazioa eta partaideen adierazpenak jaso ahal izango dira prentsaurreko berezian.

Deialdiak posta elektronikoz bidaliko dira komunikabideetara, eta www.txapelketanagusia.eu webgunean ere kontsultagai izango dira.

“Bertsolaritza eta kazetaritza” ikastaroa

Bertsozale diren irakurle, entzule, ikusleei ez ezik, bertsolaritzara hurreratzen den jende berriari ere bertsoez azalpenak emateko bitartekoak eta baliabideak eman nahi dizkie kazetariei Bertsozale Elkartek. Horretarako, egun biko mintegia antolatu dugu.

Doako ikastaroa izango da. Goizeko jardun bi izango dira, irailaren 24an eta 25ean, 10:00etatik 13:30etara, Bertsozale Elkartek Villabonan daukan egoitzan (Mintzola Etxea, Kale Nagusia 70)

Izena-emateko info@txapelketanagusia.eu helbide elektronikora bidali behar dira datuak: izena-abizena, komunikabidea eta harremanetarako telefono zenbakia eta posta elektronikoa.

Akreditazioak

Txapelketan zehar antolatzen diren ekitaldi eta saioetara sartzeko akreditazioa eskatu beharko dute komunikabide eta kazetariek info@txapelketanagusia.eu helbidean.

Saio bakarrerako zein txapelketako saio guztietarako akreditazioak egongo dira.

FINALERAko akreditazioak abenduan banatuko dira.

Internet ataria: www.txapelketanagusia.eu

www.txapelketanagusia.eu webgunean komunikabideek erabiltzeko materiala izango da:

- Partaideen fitxa luzea eta argazkiak (inprimatzeko kalitatean)
- Saioetako argazkiak
- Prentsaurrekoetako adierazpenak
- Prentsaurreko eta aurkezpenetarako deialdiak
- Prentsa txostena
- Prentsa oharra
- “Bertsolaritza eta kazetaritza” mintegirako prestatutako liburuxka

Kontaktuak

Txapelketako Komunikazio Saila
Izaskun Ellakuriaga Bustinza
Tel.: 690 857 852
Email-a: info@txapelketanagusia.eu

Bertsozale Elkarteko Komunikazio Saila
Estibalitz Esteibar Iriondo
Tel.: 605 71 74 88
Email-a: komunikazioa@bertsozale.com

Euskal Herriko Bertsozale Elkartea
Kale Nagusia 70, Villabona
Tel.: 943 694 129

Webguneak

www.txapelketanagusia.eu / www.bertsozale.com / www.bertsoplaza.tv

Euskal
Herriko
Bertsozale
Elkartea



Kale Nagusia, 70
20150 VILLABONA
Tel.: + 34 943 694 129
bertsozale@bertsozale.com
www.bertsozale.com



bbk

 **kutxa**



euskaltel 

LAGUNTZAILEAK

STUA



UDALAK



KOMUNIKABIDEAK

